

COVID-19aren inpaktua eta ondorioak adikzioen eremuan, Euskadin

Laburpen exekutiboa:

Kontsumitzaileen edo adikzioak dituzten pertsonen tratamenduaren eta zuzeneko esku-hartzearen eremuko emaitzak.

LABURPEN EXEKUTIBOA: Tratamenduaren eta esku-hartzearen eremuko emaitzak

IKERLANAREN AURKEZPENA, HELBURUAK ETA METODOLOGIA

Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) nazioarteko pandemiatzat jo zuen COVID-19 gaitzak eragindako osasun publikoko larrialdi-egoera 2020ko martxoaren 11n. Euskadin, COVID-19aren lehen kasua 2020ko otsailaren bukaeran jakinarazi zen, eta egun horretatik aurrera, kutsatuen kopurua handituz joan zen pixkanaka. Gaur egun, Euskadi “pandemiaren bigarren olatua” deritzona bizitzen ari da; uztailaren hasieran hasi zen, eta urte bukaeran bere horretan jarraitzen du.

Joan den martxoaren 14tik ekainaren 21era arte, Espainiako estatu guztia koronabirusak eragindako COVID-19 gaitzagatiko osasun-krisiagatik alarma-egoeran murgilduta egon zen (463/2020 Errege Dekretua). Herritar guztiek aurre egin behar izan dieten arrisku orokorrez harago, drogak kontsumitzen dituzten edo adikzioak dituzten pertsonen bestelako arrisku batzuen pean ere egon behar izan dute beharbada, testuinguru horren ondorioz. Zalantzarik gabe, COVID-19ak eragindako egoerak behar, arazo eta zailtasun berriak ekarri dizkie adikzio-jokabideak dituzten pertsonen eta haien senide eta ingurukoei. Aldi berean, egoera horrek erronka berriak ekarri dizkie eremu horretan diharduten profesionalen.

Ikerlan honen helburu orokorra izan da aztertzea zer-nolako inpaktua eta zer ondorio izan dituen COVID-19aren pandemiaren krisiak adikzioen prebentzioaren, arretaren eta tratamenduaren eremuetan Euskadin. Horretarako, bi bilera birtual egin ziren uztailaren hasieran: alde batetik, prebentzioaren eremuan diharduten teknikariek; eta bestetik, adikzio-arazoak dituzten pertsonen lotuta tratamenduaren eta zuzeneko esku-hartzearen eremuan diharduten profesionalen. Bestalde, bi inkesta egin dira, online, bi kolektibo horietan. Azkenik, ikerlana osatzeko, aztertu nahi izan da adikzioen eta kontsumitzaileen eremura bideratutako zer programa, neurri eta esku-hartze jarri dituzten abian COVID-19aren pandemiaren esparruan erakunde publikoek, bai Espainiako estatuko autonomia-erkidegoetan, bai gure inguruko herrialdeetan.

TRATAMENDUAREN ETA ESKU-HARTZEAREN EREMUKO EMAITZAK

Euskadin adikzio-arazoak dituzten pertsonen lotuta tratamenduaren eta zuzeneko esku-hartzearen eremuan diharduten profesionalen dagokienez, 2020ko uztailaren 3an egin zen bileran guztira **14 profesional** parte hartu zuten, denak ere **hirugarren sektoreko 13 entitateetakoak**. Bestalde, ikerlanean **23 inkestaren** emaitzak sartu ziren. Inkestan parte hartu zuten profesionalen % 65 Bizkaiko entitateetakoak dira; % 21,7, Gipuzkoakoak, eta % 13,0, Arabakoak. Zehazki, ikerlanean parte hartu duten entitateen % 70ek kontsumitzaileekin egiten dute lan —droga ilegalak (% 73,9), alkohola (% 72,7), psikofarmakoak (% 69,6), jokabidezko adikzioak (% 65,2), tabakoa (% 52,2)—, eta % 13,0k esan dute prebentzioaren eremuan ere jarduten dutela, hezkuntza-inguruneetan, batik bat.

1. COVID-19ak KONTSUMOAN ETA ADIKZIO-JOKABIDEETAN IZAN DUEN INPAKTUARI BURUZKO IRITZIA

Drogak kontsumitzen dituzten edo adikzioak dituzten pertsonen lotuta tratamenduaren eta zuzeneko esku-hartzearen eremuan diharduten profesionalen diotenez, martxoaren 14an osasun-larrialdiko egoera dekretatu zenetik gaur egun arte, beren entitatean egindako lana kontuan hartuz, **alkoholaren kontsumoak gora egin du bai gizonezkoetan** (% 73,9) **eta bai emakumezkoetan** (% 65,2), eta **Interneten nahiz sare sozialen erabilera ere areagotu egin da bi sexuetan** (% 69,6 gizonezkoetan eta % 60,9 emakumezkoetan).

Sexuka banatuta, eremu horretako profesionalen % 65,2k uste dute **gizonezkoetan** areagotu egin dela **bideo-jokotan** aritzeko ohitura, eta erdiek baino gehiagok (% 56,5) uste dute **kalamuaren** kontsumoak gora egin duela. Bestalde, bitik batek uste du **emakumezkoetan** gora egin duela **psikofarmako**en kontsumoak, bai medikuaren aginduz (% 52,2), bai halakorik gabe (% 52,2). Psikofarmakoaren kontsumoak gora egin izanaren zergatiaz galdetuta, bi arrazoi posible nabarmendu dituzte. Alde batetik, egoeraren ondorioz, antsietatea eta

LABURPEN EXEKUTIBOA: Tratamenduaren eta esku-hartzearen eremuko emaitzak

estresa handitu izana. Bestetik, kontsumitu ohi dituzten substantziak kalean erosteko edo kontsumitzeko aukerak murriztu egin zirenez (konfinamenduagatik, kontrol soziala areagotzeagatik, erosteko zailtasunengatik, etab.), hainbat pertsonak substantzia-mota aldatzea erabaki izana. Azkenik, lehen mailako arretako osasun-langileek askoz psikofarmako gehiago eman edo agindu dituztela ere sumatu dute.

Ikusi dutenez, gainera, oro har gora egin du COVID-19aren ondoriozko egoerak eragindako **estres, larritasun edo antsietateagatik kontsumoak edo adikzio-jokabideak** (% 78,3), bai eta **bakarkako kontsumoak** ere (% 73,9), eta handitu egiten da etxean kontsumitzearekiko **permisibitatea** (% 65,2).

COVID-19ak eragindako egoeraren ondorioz jendearen kontsumo-ohiturak aldatu izanak handitu egin du drogak kontsumitzen dituzten edo adikzioak dituzten pertsonekin lotuta Euskadin tratamenduaren edo zuzeneko esku-hartzearen eremuan diharduten hirugarren sektoreko entitateetan artatutako pertsonen kopurua. Zehazki, entitate horietan **artatu** dituzten pertsonen artean, gora egin dute adikzioan **berriaz erori** direnen kopuruak (% 73,9), egoerak eragindako **estresagatik eta larritasunagatik** kontsumitu dutenen kopuruak (% 69,6) eta artatu behar izan dituzten **urgentzien** kopuruak (% 69,6).

Garai horretan handitu egin dira, halaber, artatutako pertsonen edo haien ingurukoek dituzten arazoak, eta horri dagokionez, hauek dira nabarmentzekoak: lehen baino larritasun- eta antsietate-egoera gehiago sumatu dituzte (% 82,6), eta jende gehiagok du baliabide nahikorik eza, bai **ekonomikoa** (% 78,3) eta bai **lanekoa** (% 78,3), eta **bakardadea** (% 78,3). Azkenik, beste arlo batzuetan ere arazoak handitu egin direla sumatu dute: babes- eta segurtasun-neurriak betetzeko zailtasunak (% 73,9), laguntza-zerbitzu edo -baliabide publikoen jarraipenean eta arretan gabezia (% 69,6) eta bizitokiarekin, etxebizitzarekin eta/edo gizarte-bazterketarekin lotutako arazoak (% 69,6), familia-gatazkek etxe barruan (% 69,6) eta arrakala digitalak eragindako arazoak (% 69,6), besteak beste.

Oro har, profesional horien iritziz, lehendik ere egoera zaurgarrienean zeuden kolektiboetakoak izan eta adikzioak dituzten pertsonen **estigmatizazioa eta gutxiespena** ere areagotu egin da azken hilabeteotan gizartearen aldetik; batik bat, pertsona horiek etxegabeak, ijito etniakoak, immigranteak eta preso daudenak edo noizbait egonak badira. Gainera, kezkatuta agertu dira azken hilabeteotan **polizia-autoritateek** kolektibo horiekiko nolako **kontrola** eta **jazarpena** erakutsi duten ikusita.

2. COVID-19ak GIZARTE-TALDEETAN IZANDAKO INPAKTUAN ALDEAK

Adikzioekin lotutako kontsumoak eta jokabideak dituzten pertsonak zuzenean artatzen dituzten profesional gehienek esanetan, azken hilabeteotan egindako lana kontuan hartuz, adikzioekin lotutako kontsumoen eta jokabideen eremuan **COVID-19ak izandako inpaktuan alde nabariak daude gizarte-talde batzuetatik besteetara** (% 69,6).

Zehazki, COVID-19aren pandemiak kolektibo hauei eragin die gehien:

- Gizarte- eta bizitoki-bazterketako egoeran dauden herritarrak.
- Osasun mentaleko arazoak, bestelako patologia batzuk edo aniztasun funtzionala duten herritarrak.
- Diru-sarrera txikiak edo lan-baldintza prekarioak dituzten edo maila sozioekonomiko apalekoak diren herritarrak.
- Herritar immigranteak.
- Inoren kargura ez dauden adingabe atzerritarrak eta ezein senideren kargura ez dauden gazte atzerritarrak.
- Preso dauden herritarrak eta noizbait preso egonak.
- Ijito etniako herritarrak.
- Genero-indarkeriaren biktima izan diren herritarrak.
- Tratamendua utzi duten herritarrak.
- Laguntza-saririk gabeko herritar gazte eta nerabeak.

LABURPEN EXEKUTIBOA: Tratamenduaren eta esku-hartzearen eremuko emaitzak

3. ESKU-HARTZE PLANIFIKATUETAN IZANDAKO ALDAKETAK ARLO-MOTETAN ETA MODUETAN

COVID-19ak eragindako egoerak **inpaktu nabaria** izan du zuzeneko arretan diharduten profesionalen jardunean. Ikerlanean parte hartu duten ia entitate guztiek normalean egiten dituzten **programak egokitu** behar izan dituzte (% 95,7), eta hamarretik bederatzik modu **telematikoan**, birtualean edo etxetik egin dute lan (% 91,3). Hirugarren sektoreko entitateen % 70 inguruk programaren bat **aldi baterako bertan behera utzi** behar izan dute pandemiaren ondorioz (% 73,9), **finantziario-arazoak** izan dituzte (% 69,6) eta **programa berriak** sortu dituzte (% 69,6).

Profesional guztiek nabarmendu dute ahalegin handia egin behar izan dutela COVID-19aren pandemiaren garaian arreta- eta tratamendu-zerbitzuek **irekita jarrai zezaten**, ahal zen neurrian. Horretarako, arreta emateko moduetan **aldaketak** egin behar izan dira batzuetan, esku-hartzeak **egokitu**, bai eta zenbait zerbitzu **lehenetsi** ere. Bestalde, entitate batzuek aitortu dutenez, eskaera handitu egin dela eta –alegia, kasuak ugari eta beharrak handitu egin direnez– eskaini ohi dituzten zerbitzu edo baliabide batzuk zabaldu egin behar izan dituzte.

4. IDENTIFIKATUTAKO ARAZO NAGUSIAK

COVID-19aren pandemian oso baldintza gogorretan lan egin behar izan badute ere, zuzeneko arretako profesionalak oso balorazio positiboa egiten dute azken hilabeteotan egin duten lanaz. Alderdi positiboen artean, hauek nabarmentzen dituzte, besteak beste:

- Kontsumitzaileei edo adikzioak dituztenei arreta ematen diharduten profesionalak egoera berrira berehala egokitzeke izan duten **jarrera ona** eta garrantzia.
- Zerbitzu horien erabiltzaileek beste kontsumitzaile batzuk lokalizatzen emandako **laguntza**.

- Profesionalak egoera berrira berehala **egokitu** izana.
- Hainbat sektoretako profesionalak elkarrenganako izandako **elkartasuna**.
- Profesionalen artean COVID-19aren **kutsatze-intzidentzia txikia** izan dela.
- Pandemiaren sortu diren **komunitate-sareak**.

Edonola ere, ohiko lana egin ahal izateko zailtasun handiak ere izan dituzte zuzeneko arretako profesionalak; beste zenbait arazoaren artean, artatzen dituzten kolektiboen heterogeneotasunagatik eta horiek dakartzaten arrisku-faktoreengatik. Arazo hauek dira nabarmentzekoak:

- Telesan eragindako **ondorioak**: ez soilik indibidualak eta pertsonalak, baizik eta baita **lanarekin lotuak** ere (programak eta zerbitzuak atzeratu, bertan behera utzi eta egokitu beharra, lan-karga), eta **ekonomikoak** (inbertsio handiagoa, finantziarioz eza) eta **pertsonalak** (familiarak, emozionalak eta psikologikoak, langileenak beraienak).
- Bide ez-presentzialen bitartez erabiltzaileei **arreta emateko eta jarraipena egiteko zailtasunak**: erabiltzaileekin harremana galtzea, loturarik eza, erabiltzaileekin harremanetan jartzeko zailtasunak, aurrez aurre elkartu ezin eragindako arazoak, babes- eta segurtasun-neurrien ondoriozko zailtasun erantsiak, etab.
- Entitateek emandako erantzunari buruzko balorazio positiboa, baina ahaztu gabe **kostu pertsonal handiko** bizipena izan dela profesionalentzat.
- Zerbitzuak ematen jarraitzeko **dirulaguntzak eta laguntza ekonomikoak bertan behera uztearen edo halakorik ez izatearen inpaktuak** eragindako zailtasunak.

LABURPEN EXEKUTIBOA: Tratamenduaren eta esku-hartzearen eremuko emaitzak

- Agintaritzaren publikoaren zerbitzuetara eta baliabideetara **iristeko arazoak** (zerbitzuak eta baliabideak ixtea, eta plaza berriak ez irekitzea). Beren ustez, laguntza falta hori hirugarren sektoreko entitateek “konpentsatu” behar izan dute.
- Adikzioen eremuan jardunbide-**protokolorik eza**, jarraibide edo agindu kontraesankorrak eta babes-material falta.
- Administrazioaren aldetik adikzioen eremuarekiko **aitortzarik eza**.

5. BEHARRAK ETA ETORKIZUNEN ERROKAK

Kontsumitzaileekin edo adikzioak dituzten pertsonekin lotuta tratamenduaren eta zuzeneko esku-hartzearen eremuan etorkizunean izan litezkeen jardunbide-ildoei eta errokeni dagokienez, proposamen hauek dira nabarmentzekoak:

- Beharrezkotzat daukate **zaugarrien** dauden kolektiboak, **gizartetik baztertuta** geratzeko arriskuan daudenei eta **egoera sozioekonomiko okerrean** daudenei bideratutako **arreta indartzea**: aurreikusten dute gora egingo duela zaugarritasun-egoeran daudenen kopuruak, handitu egingo dela gizartetik baztertuta geratzeko arriskuan daudenen kopuruak adikzioak dituzten edo kontsumitzaile diren herritarren artean, etab.
- Garrantzitsutzat daukate pandemian bizi izandako egoeraren **ondorioak lantzea**: heriotzaren eta doluaren kudeaketa; pandemiaren inpaktua maila psikologikoan, maila emozionalean, harremanetan eta jokabideetan; osasun mentaleko arazoak; aurreikusten dute gora egingo dutela farmako eta medikazio bidezko tratamenduek, etab.
- Garrantzitsutzat daukate **haurrek eta nerabeek** bizi izandako egoeren **ondorioak** lantzea: aurreikusten dute ugartu egingo direla familia barruko gatazkak, adikzio-jokabideak familiaren esparruan eta arazo

psikologikoak, bai lehen ere kontsumitzaile ziren eta egoera okertu egin zaien herritarren artean, bai lehen kontsumitzaile ez ziren eta orain kontsumitzen hasi diren herritarren artean, aisiako eta sozializazioko modu berriak gazteen artean, arrisku berriak, etab.

- Uste dute sustatu egin behar dela **hirugarren sektoreko entitateetan** diharduten profesionalen arteko **egiazko lankidetzak** eta **sareko lana**, bi helbururi begira: batetik, aliantza, komunikazio eta talde-lan handiagoa sortzeko; eta bestetik, adikzioen eremuan diharduten profesionalak ahalduzkoak.
- Beharrezkotzat daukate **hobeto antolatzea** eta lana **koordinatuta eta sarean** egitea **erakundeekin** (udal-mailakoak, aldundietakoak, Osasun Saila, etab.); alde batetik, ildoak ezarri behar direnean, azken hilabeteotan bizi izan ditugun moduko egoeren aurrean protokoloak modu bateratuan sortzeko eta emandako agindu, jarraibide edo neurriak adostuak izan daitezkeen sustatzeko; eta bestetik, informazioa eta datuak partekatu ahal izateko. Bestalde, erabiltzaileei erraztasun burokratikoak ematea ere lortu nahi da, eskaintzen diren baliabideen laguntza izan dezaten.
- Beharrezkotzat daukate adikzioen eremuan ere **finkatzea** **“protokoloak”, “jokabide-ildo orokorrak”, “baliabideen gidak”, “jardunbide egokietarako tresnak”, etab.** Uste dute jarraitu beharreko ildoei-eta buruzko horrelako gomendio eta aholkuak, modu bateratuan eginez gero, oso baliagarriak izango liratekeela pandemiarekin bizi izan ditugun moduko egoeretan.
- Beharrezkotzat daukate **paradigma aldatzea**, diziplinaz gaituriko benetako uztarketa bat gerta dadin ikuspegi biologiko, psikologiko eta sozialen artean eta osasunaren eta gizartearen arloak bereizita egon ez daitezkeen.

LABURPEN EXEKUTIBOA: Tratamenduaren eta esku-hartzearen eremuko emaitzak

- COVID-19a dela-eta bizi izandako egoeraren aurrean, ezinbestekotzat daukate azken hilabeteotan **egindako lanari buruzko gogoeta eta ebaluazioa egitea** (eta identifikatzea zer jardunbidek funtzionatu duten eta zeinek ez), bai barne-mailan lantaldeak berak, bai kanpotik erabiltzaileekin eta/edo parte-hartzaileekin.
- Uste dute **hobekuntzak** egin behar direla pandemiaren garaian izan dituzten gabezietan, **bitarteko** eta **baliabide material, erlazional** eta **logistiko** falta horretan. Ezinbestekotzat daukate bitarteko gehiagoz hornitzea eta **profesionalak babestea** egoera honek haiengan izan dituen ondorioetatik (estres erantsia, akidura emozionala, lan-karga, etab.).
- Lan telematikoa eta bide telematiko berrien erabilera indartzea beharrezkoa eta garrantzitsua izanagatik, **ukaezintzat** daukate **aurrez aurreko lanaren** eta taldeko **zuzeneko esku-hartzearen** garrantzia.
- Uste dute erakunde publikoek **behar-beharrezko eragiletzat** hartu beharko lituzketela hirugarren sektoreko entitateak.
- Beharrezkotzat daukate **egokitzea eta formakuntza**, COVID-19aren pandemian bizi izandakoen moduko egoerei aurre egin ahal izateko.
- Azkenik, egiten duten lanaren jarraipena baldintzatu dezaketen murrizketa posibleengatik kezkatuta, beharrezkotzat daukate, gutxienez, **jarraipena ematea** eta **eustea** orain arteko **dirulaguntzei** eta **baliabide ekonomikoei**, bai eta lehendik planifikatuta dauden proiektuei ere, programa, baliabide eta zerbitzuek irekita jarraitu ahal izateko eta orain arte eskainitako arretaren kalitateari eutsi ahal izateko.